

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **3h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez. 	60-70 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	120 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

HAINBESTEAN?

«Irakasle on bat izan duenak, bakar bat bada ere, sekulako zorrea izan du bizitzan». Aspaldi entzun nuen esaldia. Eta ni neu oso zorioneko izateko baldintzapean hezia izan naizela atera nuen ondorio.

No estamos solos liburuan irakurri dudan pasarte batek eragin dit gogoeta. El Gran Wyomingek idatzia da eta elkarrizketak ditu oinarri. Marina Garcés filosofia-irakasleari egindakoan, emakume horrek kontatzen du Espai en Blanc kolektiboan txertatu zenetik, pentsatzen ikas dezagun duela helburu nagusi, gauzen, hitzen, filosofiaren, politikaren eta demokraziaren egiazko zentzua berreskura dezagun. Beldurra da, bere ustez, botereak betidanik erabili izan duen armarik behinena. Beldurra urritzen digu askatasuna, eta konformista bihurtzen. Beldurra omen garamatza errealitatea ikuspuntu bakarretik ulertu eta asebetarik sentitzera. Intsektuen begirada bagenu, milaka ikuspuntu txikiz osatua, irudiak mosaiko gisan jasoko omen genituzke, eta errealitateari taxu egiazkoagoa hartuko omen genioke. Nolanahi ere, Europan indarrean dabilten murrizketekin, gero eta desberdintasun handiagoak izango omen dira Hezkuntzan eragiten ari direnekin, esaterako, beken kopurua urritu, matrikulak garestitu, ratioak ukitu... Gero eta gazte eta ez hain gazte gehiago geratzen ari omen dira oinarrizko eskubideetara ere heldu ezinik.

Pasadizo xume bat kontatzen du Marina Garcésék. Adiskide batekin egin zuen topo manifestazio batean. Antropologoa, institutu-irakasle eta unibertsitaterako ikerketa-lanak egiten zituen. Ez omen zeukan, urteetan lan horretan aritu arren, postu finkorik eta batetik bestera ibiltzen omen zuten. Diosalarekin batera egin omen zion aitortpena: «Badakizu? Turismo-gidari ari naiz lanean». Harridura azaldu zion eta azalpenak jaso. «Hezkuntzatik ez didate deitzen, eta okerreana da ez didatela deituko beste puska batean, ordezkapen-arau berriak direla eta, zakurraren ipurdian geratu bainaiz zerrendetan. Ez didate lan-ordutegia

murriztuko edo hilabeteetan itxaronaraziko. Ez didate deituko eta kitto. Etsia hartu dut. Utzi egin dut irakaskuntza eta turismo-gidari ari naiz. Ez ditut astean hogeita bost ordu sartzen, hogeita hamazortzi baizik. Eta ez ditut hilean mila eta bostehun edo mila eta zortziehun euro irabazten, bederatziehun baino. Baina ongi nago...». «Nola daiteke egoera horretan ongi sentitzea?», egiten dio galdera Marinak. Gizarteak kanporatu egin zaitu. Gizarte horretan irakasle zinen, nor. Egiten zenizkion ekarpenak gizarte horri. Zailtasunak zailtasun, gizarte horren parte zinen eta orain egotzi egin zaitu. «Tira... Okerrago izan zitekeen», erantzun zion irakasle ohiak. Eta filosofoak erantzun horri eusten dio epaia emateko: iritsi da, eta nabarmenago iritsiko gerora, justua ez den sistema batekiko konformidadea. Eskailera-maila bat jaitsarazi didate, baina ez naiz barreneraino erori. Biziraupena lortzeko borrokan katramilatu gabe nabil oraindik. Hainbestean, beraz.

Guk, euskaratik, oso argi daukagu konformidadea ez dela bat etortzea; batuk eragindakoari, besteak, hobe beharrez edo kalte handiagoen beldur, men egitea baizik. Ez dela adostasuna ere, ados jartzeko biek behar baitute parean. Gure zaharrek zioten konformidadearen kutxan zetzala zorionaren giltza. Zorigaitzotzarena datzala han ari gara konturatzen. «Zer moduz?» ohiko galderari euskaraz hain jatorra den «hainbestean» formulaz erantzutea ere birpentsatzen ari naiz. Etsi kutsua du. «Ongi» erantzungo dut aurrerantzean. Edo «gaizki». Dagokiona. Baina ez «hainbestean». Irakasle onek beren lanari uko egin beharrik dioten bitartean ez baikara hainbestean ibiliko, jendarteari eskaintzeko zeukanik eta onena, huraxe, kendu baitiote. Gaur egungo boteredunek, aldiz, nahiago izango dute beti irakasle on bat baino turismo-gidari txar bat. Ezagutza, ideiak eta harremanak aireratu orde, haizatu daitezela giza-emakumeon eta txanponen joan-etorriak!

EGAÑA, Andoni. <eibz.educacion.navarra.es>, 2015eko urtarrila. Egokitua.

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Irakasle onaz aspaldian entzundakotik, zer ondorio atera zuen testugileak?**
 - a) Zoriontsu izatea oso zaila dela, heziketak hartara bideratzen gaituen arren.
 - b) Bakoitzak izan duen heziketak baldintzatzen duela norberaren zoriontasuna.
 - c) Bakoitzaren bizi-baldintzek mugatzen dutela zoriontasuna.

2. **Zein da Marina Garcésen helburua testuaren arabera?**
 - a) Hainbat kontzeptu nola edo hala ulerraraztea, horien benetako esanahia zein den jakin ez arren.
 - b) Hausnartzen ikastearen garrantziaz ohartaraztea, errealitatea behar bezala hautemateko.
 - c) Pentsatzen ikasi ahal izateko, hainbat arloren inguruko egiazko zentzua berreskuratzea.

3. **Errealitatea ulertzeko orduan, zer eragiten digu beldurrak?**
 - a) Askatasuna urritzearekin batera, errealitatea ikuspegi bakarretik ulertzea.
 - b) Botere-galera eta askatasun-murrizketa nabarmena.
 - c) Errealitatea adiago aztertzer behartzen gaitu eta, beraz, hobeto interpretatzera.

4. **Zerk etsi zuen Marina Garcésen adiskidea?**
 - a) Astean ordu gehiago lan egin arren, gutxiago irabaziko zuela jakiteak.
 - b) Antropologia-ikasketak eginagatik, Turismoaren hautua egin beharrak.
 - c) Irakaskuntzan jarduteko inolako aukerarik gabe utzi izanak.

5. **Zein da Marina Garcésen duen iritzia adiskideari gertatutakoaz?**
 - a) Gizarteak hainbat ostiko emanda ere, eskaintzen digun apurrari nahikoa irizten diogula.
 - b) Ez dugula borrokarako katramilaren beharrik.
 - c) Bizirauteko, gizarteak eskaintzen diguna onartu beharrean gaudela.

6. **Zer da konformitatea Marina Garcésen iritiz?**
 - a) Jarrera oldarkorra baztertzea adostasunerako bidea erraztearren.
 - b) Bi pertsona ados egon ez arren, bata bestearen parean jarraraztea.
 - c) Beste batek eginarazitakoaren aurrean, burua makurtzea.

7. **Egañaren ustez, zer ematen dugu aditzera «hainbestean» diogunean?**
 - a) Etsipena ezkutatzeko formula bat da.
 - b) Nolabait, eta neurri batean, amore ematen dugula adierazten dugu.
 - c) Ilusio oro zapuzturik ere ez dugula amore eman.

2. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

HIZKUNTZA OINARRIAK

Uste zen baino askoz estuagoa da burmuinaren eta hizkuntza-gaitasunaren arteko harremana. Hizkuntzak ez dira, inolaz ere, ausaz kateatutako hitz-segidak, elementu multzo batez osatutako sistema konplexuak baizik. Elementu horiek guztiak ez dira kaotikoki lotzen, une oro elkarrekiko mendekotasuna baitute. **8**

Giza hizkuntzak baditu hainbat ezaugarri eta bereizgarri; esaterako, arbitrariotasuna, segmentu diskretuen erabilera, segmentuak konbinatzeko erak, erregela multzoen erabilera, iraganari erreferentzia egiteko gaitasuna... **9** Norberaren ahalmen linguistikoa biologiak eta hornidura genetikoak mugatzen dutela uste da, neurri batean behintzat.

Ahalmen linguistikoari lotutako atalak biltzen ditu hizkuntza-gaitasunak. Are gehiago, ikerlarien esanetan, burmuinean dago gaitasun horien guztien jatorria. Nabarmena da, adibidez, hizkuntza desberdinez jabetzeko, umeez duten ahalmen berezia. Helduaroan, murriztu egiten da ahalmen hori. Gizakia hizkuntzaz nola jabetzen den azaltzeko, hainbat proposamen egin dira; besteak beste, hizkuntzaz jabetzeko periodo kritiko bat dagoela (haurtzaroa) azpimarratu izan da. **10** Periodo kritikoan, burmuineko eremu espezializatuak erabiltzen dira, eta hizkuntzaren alorrean naturalki trebatzen; aitzitik, periodo kritiko horren ostean ikasten diren hizkuntza guztiak beste modu batera gureganatzen omen ditugu; eta, horretaz gain, burmuineko eremu desberdinak aktibatzen omen dira ikasketa-prozesuan. Oraindik horretaz azalpen argirik ez dagoen arren, helduen eta haurren burmuinak desberdinak direla uste da, neurona-sareen konexioei erreparatuz behintzat. Helduen kasuan, badirudi mielina deritzon substantzia koipetsuak isolatu egiten dituela neuronon arteko konexioak, azkarragoak bilakatzearen, baina,aldi berean, konexio berriak egitea galarazten duela. **11**

Fenomeno hori ez da bat-bateko eraldaketa izaten, baina, zenbat eta zaharrago, orduan eta gehiago hautematen da. Aitzitik, umetxoek badakite koordinazioa, galderak, ezezko esaldiak eta erlatibozko perpausak osatzen eta izenordain egokiak aukeratzen «bi gehi bi» operazio matematikoa egiten ikasi aurretik. **12**

Hizkuntza naturalari dagokionez, hitz egitean, ezker hemisferioko eremu batzuk aktibatzen dira; hauek, besteak beste: Broca eremua eta Wernicke eremua. Berebiziko garrantzia dute eremu horiek, hizkuntzaren arkitektura ulertzen eta hitzak eta esanahiak lotzen laguntzen baitute. **13** Broca afasia –agramatikoak– hizketa motelari, hitzak bilatzeko geldialdiei, funtzio-hitzen galerei eta ulermen-arazoei lotuta dago. Wernicke afasia, aldiz, hizketa arinari baina lexiko-hautapen okerrari ere lotzen zaio, zentzurik gabeko hitzak erabiltzeari, alegia.

Bestalde, hizkuntza-gaitasunari loturik egon daitekeen gene bat aurkitu da –FOXP2 genea–, zeinak pentsamenduak hizketa bihurtzen laguntzen duen. Biologiako ur sakonetan murgildu gabe, gene horren funtzionamendua pentsamenduak komunikatzeko erabilgarri den kanal baten antzera uler daiteke. Animalietan ere antzeko genea aurkitu da, baina ez gizakietan bezain garatua. **14**

Juan Uriagerekak idatzitako artikulu batean argi aipatzen da azaldu berri den hizkuntza-gaitasunaren oinarri biologikoa. Baina oinarri biologikoaz gain, badira beste hizkuntza-oinarri garrantzitsu batzuk ere, hala nola oinarri kulturala eta oinarri soziala. **15** Argi dago, honenbestez, ez dagoela hizkuntza primitiborik, ezta hizkuntza modernorik ere, hizkuntzen ibilbidea etengabe ari baita aldatzen.

LOPEZ-GAZPIO, Iñigo. <elhuyar.eus>, 2015eko otsaila. Egokitua.

2. ariketa. Txertatu testu zatia

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatiotako bat sobera dago.**

- A.** Horregatik da neketsuagoa, hain justu ere, heldutan kontzeptu berriak ikastea eta burmuineko atal espezializatuak trebatzen jarraitzea.
- B.** Are gehiago, burmuineko alde horiek kalteturik dauden kasuetan, ahalmen linguistikoa mugatuta egon ohi da.
- C.** Hizkuntza-komunikaziorako oinarriko gaitasunak komunikazioaren egintzan elkarlotzen eta elkar elikatzen diren abilezien, ezagutzen eta jarrerren multzoa barne hartzen du.
- D.** Esaterako, euskara hizkuntza arkaiko modura sailkatzearen arrazoia, hain zuzen ere, aipatutako funts horietan dago, ziurrenik, euskarak ez baitu ikerketalero alderagarririk hizkuntza «nagusiekin» parekatuta.
- E.** Giza hizkuntzaz baliatzeko, behar-beharrezkoa da bizitzan zehar bildutako hizkuntza-gaitasunak erabiltzea.
- F.** Harritzekoa ere bada nola jabetzen diren bizi diren tokiko hizkuntzaz urte gutxiren buruan, nahiz eta esperientzia linguistikoa mugatuz eta urriz horniturik egon.
- G.** Halaber, elementu bakoitzean izaten diren aldaketek eragina dute beste guztietan, norberaren hitz egiteko eran, hain zuzen ere.
- H.** Honenbestez, argi dago badela oinarri biologikorik hizkuntzaz jabetzeko prozesuan.
- I.** Garuneko neurona-sareen egiturari dago lotuta aro hori, «mielinizazioa» deritzon fenomenoari, hain zuzen ere.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	8	9	10	11	12	13	14	15
Testu zatiak								

Soberakoa	
-----------	--

OHARRA: Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ZERBITZU PUBLIKOAK

Kapitalaren jardun-eremua etengabe handitzearen ondorioz, hau da, mundializazio edo globalizazio deritzon prozesuaren ondorioz, zerbitzu publikoak merkatuan sartzeko eta pribatizatzeko presioa areagotu egiten da. Horiek, definizioz, jabetza pribatuaren aurkakoak dira, estatuak kudeatzen baititu eta biztanleriaren interes orokorreari erantzuteko helburua baitute. Gaur egun, zerbitzu publiko gisa jarraituko duten ala ez puripurian dagoen eztabaidagaia da. Zerbitzu publikoa izateak ekimen pribatua kanpo uzten dela esan nahi du. Era berean, zerbitzu publikoak etengabe eta erregularitasunez jardun behar du, herritarren beharretara egokitu behar du eta berdintasunaren printzipioan oinarritu behar du. Izan ere, «publikoa» denak ez du inor baztertuta utziko. Ezaugarri hori funtsezkoa da, zerbitzuaren kudeaketan errentagarritasuna interes publikoaren menpe jarri behar baita, bizitza duinerako hain garrantzitsuak diren zerbitzuetan: prestakuntzan, hezkuntzan, osasun- eta gizarte-babesean, garraioan, ur-horniduran... Horrela, bada, ezinbestekoa da, gizarte-, ekonomia- eta lurralde-koherentsia lortzeko.

Zerbitzu publikoaren eta denon onuraren kontzeptuak aldatuz joan dira denboran zehar. Justinianok, Bizantzioko enperadoreak, «gizateriaren berezko gauzak» aipatzen zituen, uraz eta lurraz aritzeko. Erromatar inperioaren garaian, *res comun* esaten zitzaion onartutako hiru jabetza motetako bati. Kapitalismoaren aurreko Ingalaterran, berriz, nekazariak antolatzeke moduetako bat izan zen *commonsena*. Ondasunak eta zerbitzuak denonak edo publikoak direla esaten badugu, gizarte-borroka eta erresistentzien eraginez da, hein batean. Horiek agerian jarri dituzte merkatuaren mugak «gizarte-oreka»ren ustezko erdigune gisa edo merkatuari galarazi egin diote ondasun eta zerbitzu publikoek jabetu eta horien erabilera eta kontsumoa murriztea.

Aurreko mendeko laurogeiko hamarraldiaz geroztik, neoliberalismo gisa ezagutzen dugun kontrairaultza kontserbadorea orokortzearen ondorioz, ekoizpen kapitalista globalizatu egin zen, eta esparru kolektiboa murrizteko eta zerbitzu publikoak erasotzeko presioa areagotu. Diskurtso itxuraz unibertsalista batean —eskuratzeke eskubidea orokortzea— oinarrituz, ondasun eta zerbitzu publikoen —ura, osasuna, lurra— pribatizazioa sustatzen dute etengabe, gobernuen laguntzarekin eta zenbait erakunderen (Munduko Bankuaren, Nazioarteko Moneta Fondoaren eta Munduko Merkataritza Antolakundearen) konplizitatearekin. 1990 eta 1995 bitartean, Munduko Bankuak 21 mailegu eman zituen, ura pribatizatzeko baldintzapean; 1996 eta 2002 artean, 66 izan ziren.

2000. urtean, Cochabamban (Bolivian) ura pribatizatu eta Aguas del Tunari enpresaren esku utzi zenean, «Uraren gerra» ezaguna sortu zen, XXI. mende bete-betean. Bi urte geroago, Argentinako Santa Fen «urre urdina» Lyonnaise des Eaux enpresa frantziarraren alde pribatizatu izanak mobilizazio masiboa sortu zuen nazioan. Kasu horietan, munduan ura pribatizatzeko gainerako prozesuetan bezalaxe, hainbat argudio errepikatzen dira: ondasuna kudeatzeaz arduratzen den zerbitzu publikoaren «eraginkortasun falta», «hornidura bermatzea», «bidezko prezioa» eta abar. Ura merkaturatzearen ondorioz irabazi eskergak eskuratzen dituzten transnazionalen artean, Veolia (Frantzia) da nagusi; RWE (Alemania) eta United Utilities (Erresuma Batua) ere uraren mundu-merkatua kontrolatzen duten korporazio nagusien artean daude.

Europar Batasunak, Estatu Batuek eta, besteak beste, Mexikoko, Kolonbiako eta Txileko gobernuek sustatzen dituzten merkataritza askeko akordioak plataforma garrantzitsuak dira, zerbitzu publikoak desaratzea eta pribatizatzeko bultzatzeko. Horixe da osasunaren kasua, eta are hezkuntzarena ere, salgai mamitsu bihurtu baitira. Lisboako Itunak —Europar Batasunaren Itunak, oinarritzeko eskubideen gutunak, beste itun batzuek eta hamarka protokolo eta eranskinak osatzen dute— «lehia askea eta faltsutu gabea» proposatzen du, behin eta berriro, Europako bloke ekonomikoaren barne-politiken gidari gisa. Beren eremuan zerbitzu publikoen pribatizazioa sustatzeko aukera ematen die printzipio horrek Europako Batzordeari eta gobernu liberalei.

Zerbitzu publikoen pribatizazioaren aurkako borroka gizarte-prozesua da, eta atzera-aurrera ugari izan ditu. Transnazionalak eta hainbat erakunde (Nazioarteko Moneta Fondoa eta Europako Batzordea, adibidez) Europako krisiaz baliatu dira, ondasunak eta zerbitzuak pribatizatzeko; esate baterako, posta, elektrizitatea, ospitaleak eta ur-hornidura eta saneamendua. Prozesu horren aurrean, zenbait mugimenduk, Uraren Mundu mailako Kontratuaren aldeko Elkarteak kasu, egindako lanari esker, nazioartea mobilizatu egin zen, eta, ondorioz, Nazio Batuek eskubide unibertsaltzat onartu zuten ur-hornidura.

Berriki, eztabaida sortu da zerbitzu publikoak nola kudeatu eta arautu beharko liratekeen. Izan ere, gaur egun, herritarren interesak bi noranzkotan sakrifikatzen dira: batetik, kudeaketa publikoak jardueraren mozkinak maximizatzeari ematen dio lehentasuna, eta, horren arabera, erakunde mailegu-hartzaileak itxuraldatu eta enpresa pribatu bihurtzen ditu; bestetik, estatuak konpainia pribatuen interesen esanetara daude, eta, premia biziko zerbitzuetan herritar gehienengoz ongizatea zaindu beharrean, liberalizatzeko eta pribatizatzeko politikak onesten dituzte, arin eta bizkor. Kapitalismoa ez da gauza gizateriaren arazoak egoki kudeatzeko, gaur egun munduak bizi duen krisi sistemikoak —ekonomikoa, soziala eta ingurumenarena— erakusten duenez. Bestalde, zerbitzuak «denon interesa»ren izenean estatizatzeak ere ez ditu beti emaitza onak izan, ustelkeria politikoa ezkutatzearren kudeaketa ilunak eman baititu zenbaitzuetan. Hori dela eta, herritarren kontrol-mekanismoak beharko lirateke, gardentasuna, demokrazia eta partaidetza publikoa areagotzeko. Une jakin batzuetan, gainera, estatuak ere aurrez aurre jarri izan ditu «denon interes» hori eta gutxiengoaren eskubideak eta ingurumenaren babesa. Horregatik, aukera berriak bilatu behar dira, hala Zuzenbidearen esparruan nola gizarte-arauketaren alorrean (elkarren onura bermatzeko, gizateriaren berdintasunean oinarrituz).

MORO, Braulio Alfonso. <omal.info>, 2013ko otsailaren 4a. Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu erantzuna

16. Zer da globalizazio- eta mundializazio-prozesua testuaren arabera?

- a) Kapitala gero eta arlo gehiagotan erabiltzea.
- b) Gero eta kapital handiagorekin jardutea.
- c) Kapitalaren erabilera geldieztina eta iraunkorra izatea.

17. Zergatik dio testugileak ondasunak eta zerbitzuak denonak eta publikoak direla?

- a) Historikoki, gizarte-orekaren bermea izan direlako.
- b) Merkatuaren azken onuraduna gizarte osoa delako.
- c) Batez ere gizarte-borrokari eta erresistentziari esker lortu direlako.

18. Zergatik egin zuen gora zerbitzu publikoen aurkako jarrerak?

- a) Oro har, kontserbadoreek iraultza egin nahi izan zutelako.
- b) Kolektibo neoliberal kontserbadorea asaldatu egin zelako.
- c) Neoliberalismoa hedatu egin zelako.

19. Nola indartzen dute zerbitzu publikoen pribatizazioa?

- a) Interes orokorren defentsan, gobernuen eta erakundeen konplizitatea sortuz.
- b) Zerbitzuak denontzat izango direla adieraziz eta gobernu eta zenbait erakunderen laguntza lortuz.
- c) Diskurtso unibertsalaren aldeko itxurak eginez.

- 20. Zer gertatu zen 2002. urtean Argentinako Santa Fen?**
- a) Enpresa batek ez ziola jarraitu uraren zerbitzu publikoa pribatizatzeko ohiko prozedurari.
 - b) Enpresa pribatu batek lortu zuela uraren kudeaketa.
 - c) Uraren zerbitzu publikoa pribatizatzeko, enpresa frantziar baten alde egin zutela, enpresa nazionalen kalterako.
- 21. Zer egozten zaio Frantziako Veolia enpresa ezagunari?**
- a) Sekulako mozkinak lortzen dituela uraren kudeaketa pribatizatu zenetik.
 - b) Berari esker gainerako transnazionalak irabazi handiak eskuratzen dituztela.
 - c) Beste transnazionalekin batera ura modu errentagarrian merkaturatzea lortu duela.
- 22. Zeren alde egiten du Lisboako Itunak?**
- a) EBn zerbitzu publikoak liberalizatzearen alde.
 - b) EBn zerbitzu publikoak indartzearen alde.
 - c) EBn Zerbitzu publikoen araudi eta kalitatea berdintzearen alde.
- 23. Zer lortu zuen Uraren Mundu mailako Kontratuaren aldeko Elkarteak?**
- a) Nazio Batuen Erakundeak ur-hornidura unibertsala defendatzea.
 - b) Nazio Batuen Erakundeak ur-hornidura denon eskubidea dela aitortzea.
 - c) Nazio Batuen Erakundeak nazioarteko mobilizazioak babestea.
- 24. Zein da gaur egungo jokabidea zerbitzu publikoaren kudeaketari dagokionez?**
- a) Erakunde mailegu-hartzaileei mailegu-baldintzak gogortu eta pribatizatzera behartzea.
 - b) Ekimen pribatuaren bitartekaritza sustatzea eta, era horretara, denon ongizatea bermatzea.
 - c) Pribatizazio-politikak baliatzea nahiz eta era horretara herritarren beharrak asetzeke geratu.
- 25. Zertarako beharko lirateke herritarren kontrol-mekanismoak?**
- a) Zerbitzuak denon eskura uztearen alde onak indartzeko.
 - b) Partaidetza publikoa baliatuz, zerbitzu publikoen arauketa berritzeko.
 - c) Zerbitzuak denon eskura uztearen ondorio kaltegarriak ekiditeko.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna.
 - ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa.
 - euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
 EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 250 hitz idatzi behar dituzu.
 Oharra: **Asmatu izenpea** azterketaren anonimotasuna bermatzeko.

- GAIA:** Zure arloan, batez ere bakoitzaren betekizunen inguruko gabezia eta zalantzek eraginda, langileen arteko zenbait gatazka sortu dira. Egoera horrek eguneroko lan-dinamikan zein kanpo-irudian eragin zuzena duela uste duzu.
- Egoera bideratzeko asmoz eta taldearen izenean, idatzi eskutitza dagokionari (arloburu...). Azaldu sortu den egoera, arrazoitu zuen eskaera eta proposatu konponbidea.

2. ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu. **Bat aukeratu** eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu** eta **lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

TESTU AIPAMENAK**1.****MEDIKAMENTU BERRIAK
OSASUN SISTEMAREN KALTE?**

Osasun-sistemak patenterik gabeko botikekin aurrezten duena ez da nahikoa C hepatitisaren aurkako botika edota medikamentu onkologiko berri eta eraginkorrenak finantzatzeko (farmazia- gastuaren % 9a). Eta Gobernuak agindutakoa beteko balu: “gaixo guztiek eskuratu ahalko dute behar duten medikamentua”, amildegiaren ertz-ertzean jarriko luke Osasun Sistema Nazionalaren finantza-egoera.

Laboratorioek salneurriak jaitsi ezean, ez dago gastu horri eutsiko dion osasun-aurrekonturik, eta dilema hor da: nola berma liteke botika berrien eskuragarritasuna osasun-sistema hautsi gabe?

El Economista,
2015-02-15. Egokitua

2.**HEZKUNTZAREN ARAZOAK**

Eskola Kontseiluaren ustez, adierazle sozioekonomikoak eta emaitza akademikoak lotuta daude eta sare publikoaren eta itunpeko eskoletako arteko aldea handitu egin da.

Euskadiko Eskola Kontseiluak egindako txostenaren arabera, Hezkuntza-sistemak hiru arazo nabarmen ditu: ezin ordaindu, ezin integratu eta ezin euskaldundu.

Esate baterako, itunpeko zentroetako ikasleen % 28k eskola-materiala erosteko bekak behar ditu, eta sare publikoan % 40k.

Txostenean jasotzen diren datuak deigarriak dira. Adibidez, etorkinen % 48k A ereduan eta sare publikoan ikasten du eta D ereduan ari diren ikasleen % 25ek ez du euskararen behar besteko ezagutzarik.

Argia,
2014ko abendua. Egokitua.

3.

TTIP MERKATARITZA HITZARMENA

Ameriketako Estatu Batuen (AEB) eta Europar Batasunaren (EB) arteko merkataritza-hitzarmen transatlantiko da TTIP (Transatlantic Trade Investment Partnership). Herritarrengan eragin zuzena izango duen ituna bada ere, multinazionalen, lobbyen eta botere politikoaren artean hartzen ari dira erabakiak ezkutuan, herritarren parte-hartzerik gabe eta prentsari ateak itxita.

Potentzia ekonomiko eta politiko berriak sortzen ari dira munduan. AEBk eta EBk potentzia horiei, eta gehienbat Txinari, aurre egiteko tresna gisa sortu dute TIPP. Lehen mundua delakoaren protagonismoa berreskuratzeko, gainerako potentzietan komertzio-gerra bat piztea da asmoa. EBk eta AEBk kanpoko produktuei mugak ezartzeko eta barne-produktuen ekoizpena eta errentagarritasun ekonomikoa handitzeko, ondasun eta zerbitzuen merkatuak liberalizatu nahi dituzte.

<argia.eus>, 2014ko azaroa. Egokitua.

5.

TURISMORAKO OSTATUAK ARAUTZEA

Bidaiatzeko moldeak bezala, turistek ostatu hartzeko dituzten erak ere aldatuz doaz. Turistei etxebizitzetan ostatu ematen dieten zerbitzuak dira horren adibide. Internet dela medio, azken urteotan izugarri igo da eskaintza-eredu hori eta horrek legez kanpoko egoera ekarri du. Horregatik, Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurilaritza zerbitzua kontrolatzeko eta arautzeko lanean ari dira.

Arautu gabeko egoera legeztatzeaz gain, turismorako ostatuen eskaintzan gertatzen ari den lehia bidegabea eragotzi nahi da. Internetek nabarmen erraztu dituenez horrelako jarduerak, legedi berriarekin, erregistratzeaz gain, etxea ostatu gisa erabiliko dela jakinarazi beharko du jabeak. Halaber, etxe-jabeak zergak ordaindu beharko ditu eta erabiltzaileei segurtasuna eman beharko die.

ARRIZURIETA, Irene. Berria, 2014ko urria. Egokitua.

4.

«FRACKING»A DEBEKATUTA

Frackinga eragozten duen legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak 2015eko ekainean. Hidrokarburo ez-konbentzionalak erazteko prozesuan eta haustura hidraulikoan ingurumena babesteko neurri osagarri buruzko legeak hiru muga ezartzen ditu hirigintzari, urari eta ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokienez.

EAEko legearen 3. artikulua araberak, ez da baimenduko lurzoru urbanizaezinetan, inguruko ezaugarri geologikoei, ingurumenari, paisaiari edo baldintza sozioekonomikoei kalte egin badiezaieke.

Bestalde, 5. artikulua frackinga debekatu du EAEko akuiferoen kutsadura-arrisku ertain, handi edo oso handikotzat jotzen diren guneeetan.

Alta, artikuluan «debeku» hitza agertzea aitzakia izan daiteke Espainiako Gobernuak lege berriari helegitea ipintzeko. Hala bada, EAEn eskumenak egongo lirateke jokoan.

BREA, Unai. <argia.eus>, 2015eko ekainaren 6a. Egokitua.

6.

BEHARREZKOAK DIRA GAZTEEN LOKALEN ORDENANTZAK?

Gazteen lokalak erabilera pribatuko espaziotzat hartzen dira.

Udal askok paper aktiboa erakutsi dute lokalak kudeatzeko orduan. Gazteen Euskal Behatokiak EAEn egindako ikerketaren arabera, gazte gehienek onartzen dute udalen eginkizuna: soil-soilik % 17ren iritziz, udalek ez dute zertan sartu. Udalen esku-hartzea zertan gauzatu litekeen planteatzen zaienean, gehienek ustez, udalen egiteko bakarra lokalen erregistroa sortu eta gomendioak ematea da. Gutxiago dira udalek ordenantza espezifikoa ezartzea nahi dutenak. Gazteen % 78k uste du udalek bitartekaritza-lanak egin beharko lituzketela bizikidetzaz arazorik sortuz gero.

Bestalde, hamarretik zortzik uste du udalek lokalak prezio merkean eskaini beharko lituzketela alokatu ahal izateko.

<etorkizuna.eu>, 2013ko apirila. Egokitua.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- 1. ariketa: aukeratu erantzuna.
- Irakurgaia: «HAINBESTEAN»

1.	B	2.	B	3.	A	4.	C
5.	A	6.	C	7.	B		

- 2. ariketa: txertatu testu zatia.
- Irakurgaia: «HIZKUNTZA OINARRIAK»

Hutsuneak	8.	9.	10.	11.	12.	13.	14.	15.
Testu zatiak	G	E	I	A	F	B	H	D

Soberakoa	C
-----------	---

- 3. ariketa: aukeratu erantzuna.
- Irakurgaia: «ZERBITZU PUBLIKOAK»

16.	A	17.	C	18.	C	19.	B	20.	B
21.	A	22.	A	23.	B	24.	C	25.	C